

**KANPOKO LIRIKEN HURBILKETAK
EUSKAL POESIAREN NEURRIAN**

Luis Maria Mujika

Euskal kultura beste kultura nagusien ingurunean kokaturik dagoelarik, bere lirika ere, ez tematikan soilik, *neurkeraren* eremuan ere kanpo eraginez ukitua gerta daiteke.

Gure asmoa, lan honetan, kanpo eragin horien ikuspegi bat eskaintzea da, eta beti, euskal poesia tradizionalan ematen diren neurrien arloan. Lan honen helburua, ala ere, ez da eragin horien aztarna zehatzak isladatzea, baizik-eta hurbilketa (aproximaciones) batzuk eskaintzea, ezen-eta kanpo eraginak kasu batzutan kointzidentziazkoak ere izan daitezke. Hemen ematen diren neurri batzuen parekaketa batzuk kolateralak daitezke, soilik, baina, ala ere, Euskal Herriko lirikaren kanpo zabalean ere atzeman daitezkeen elementuen ikuspegia ere dira.

1. Neurri latinoaren eragin hipotetikoak

Kanpo eraginak aztertzerakoan lirika latina berritua (eta ez ahaz gure lexikoan zer-nolako influxu galanta eduki duen) gure eremuan eta alboko liriketan izan duen pisua biziki kontutan hartu behar da. Agian, lexikoaren eremuan (gure «Latina eta erromanikoaren eragina euskaran» liburuan egin genuen bezala) (1) eragin horiek konstatagarriagoak dira; alabainan, merezi du hemen ikerketa berezi bat egitea euskal neurkeran eta poesia zaharrenean aztarna zehatzagoak kausitzearren. Orokorki hartuta, lirikari dagokionez Peter Dronke-k hau dio: «Vemos así que las primeras realizaciones en el repertorio de la lírica medieval europea conservada, se consiguen en el terreno de la lírica religiosa, en la segunda generación posterior a Carlomagno, más de dos siglos y medio antes de que comiencen a abundar los testimonios de la lírica profana y en lengua vernácula. No tengo ninguna duda sobre la existencia de pieza de talla comparable en épocas más antiguas, y esto tanto en materia profana y vernácula como en composiciones sacras hechas en latín...» (2).

(1) Edit. Sendoa, 1982, 372 or.

(2) P. Dronke. La lírica en la Edad Media. Ed. Seix Barral 1978, 39 or.

Latinak bere eragina musikan, lirikan, himnologian, etabar, gutxienez, IX, X, XI arte hedatu zuen. Hizkuntza erromanikoetan ematen den lirikan latinak neurrian eta erritmoan influxu ukaezinak edukiko ditu edonon. Gainera, latin klasikoen «Ars Poetica» ikasten jarraitzen zen aro horretako eskoletan.

San Ambrosio dugu, San Hilario-rekin batera, himnoari loturiko lirika gihartsu baten egilea. Hemen komeni zaigu himno horietako neurriak arakatzea, guk gure lirika tradizionalan topatzen dugun neurri-moeta zenbaiti hurbileko parekide zenbait egozteko.

San Ambrosiok laukoak erebiltzen zituen, dimetro ianbikoz, silaben azentuaketa erregularatasunik gabe, eta errimak oraindik hoskidetasun handirik ez zuelarik. Liturgiaren bitartez himno horietako kasu zenbait aski ezaguna da.

Hona 8/8/8/8-ko eskema bat.

A solis ortus cardine	8
et usque terrae limitem	8
Christum canamus principem	8
Natum Mariae Virginis (3)	8

Criste, qui lux es et dies	8
noctis tenebras detegis	
lucisque lumen crederis	8
kumen beatum praedicans (4)	8

8/8/8/8 delako horretan topa daiteke, batzutan, etendura, alegia, 5-3/5-3 delakoa.

Precamur, sancte / Domine,
 defende nos in / hac nocte,
 sit nobis in te / requies,
 quietam noctem / tribue (5)

Berdin «Jesu, coronam virginum» himno ezagunean:

Jesu, corona / virginum	5-3
quem mater illa / concepit	5-3
quae sola virgo / parturik	5-3
haec vota clemens / accipe (6)	5-3

Ala ere, ez dugu uste etendura horiek gure 5-3/5-3 delakoaren aurreiturri hurbilekoak direnik, baina etendurazko (hemistikiozko) joera antzekoak

(3) *San Ambrosio*. Hymnus de Nativitate Domini, *J.P. Migne*. Patrologiae cursus completus, M.L. series prima latina, t. 17, 1172 or.

(4) *San Ambrosio*. Hymnus ad Completorium, M.L. t. 17., 1176 or.

(5) *San Ambrosio*. Ibidem.

(6) *San Ambrosio*. De Virginibus, M.L. t. 17, 1221 pr.

topa daitezke dagoeneko latinean. Beraz, gure zortziko handi batzutako etendurak (10/8>5-5/5-3) ontzeko sailketak dituzte, jakina denez. Har dezagun, adibidez, «Ume eder bat» kanta sonatua; bertan 10/8, 10/8 eskema 5-5/5-3, 5-5/5-3 gisa eman daiteke:

Ume eder bat / ikusi nuen	10 (5-5)
Donostiako / kalean	8 (5-3)
itz erditxo bat / ari esan gabe	10 (5-5)
nola pasatu / parean	8 (5-3)

Gure zortziko «handiak» beti ez du etendura hori eginen, baina musika-ren beharrez eten horiek egitera joko du oso maiz.

Bestalde, esan beharrea gaude Elizaren himnologia aurretik tetrapodioak eta tripodioak poesia latino aunitzek zituela. Alde horretatik ere (hots, oinen aldetik ere) latina gure neurri zaharraren nolabaiteko eredu izan daiteke.

Dena dela, San Ambrosio-ren bertso-eredua Erdi Aro behean geror-eta gehiago arinagoa eta mugituagoa bilakatzen hasten da. Adibidez, 8/8/8/8 orde, 8/7/8/7, 6/5/6/5, 4/7/4/5 etabarrekoak azaltzen dira, aire askoz sotil eta lirikoagoaz.

Gainera, etenen bitartez 8/8/8/8-koa 4-4/4-4 gisara ere konstata daiteke:

Exul ego / diuscule	8 (4-4)
hoc in mari / sum, domine	8 (4-4)
annos nempe / duos fere	8 (4-4)
nosti fore / sed iam iamque (7)	8 (4-4)

Beste eredu mugituagoak oraindik (5/5/5/5/5-koak):

Porrige dextram	5
erige vemam	5
exue multam	5
postulo, culpam,	5
corrige vitam	5
tu, male tritam (8)	5

Eta 8/7/6/7-koak:

Pro his nunc beneficiis	8
in commune dominum	7
nos glorificemus	6
et peccatores et iusti (9)	8

XI mendean harrigarriro 4/7/4/5-eko, hots, higidura handiko, eredu hau aurki genezake:

(7) *P. Dronke*. La lírica en la Edad Media, op.c. 43 or.

(8) *P. Dronke*. La lírica en la Edad Media, op.c. 44 or.

(9) *P. Dronke*. La lírica en la Edad Media, op.c. 51 or.

Quae septeno	4
dudum daemone plena	7
vesania	4
cursitaverat	5
pestile fiosa	6
Per andronas	4
lubricas Babylonis	7
cius gaudet	4
Bel gymnasiis	5
anathematicis	6

Bereziki erritmo arin hauei esker latinak hizkuntza erromanikoetan herri-lirikan gertatuko kanta sotil-arinei aitzakia emanen die. Adibidez, Proventza-n latinez ondutako kanta erlijios horietatik jauzia eremu profanora (amodiozkora, bereziki) egingen da. Hona bat 7/7/7/7-ko neurriaz:

Mei amic e mei fiel	7
laisat estar lo gazel	7
aprendet u so noel	7
<i>de virgine Maria</i>	7

6-5/6-5/6-5/6-5 = 11 endekasilaboa garbiro «Adoro te devote» delako himnoan (lehenengo bertsoan ezik):

Adoro te devote / latens deitas	6(7)-5
quae sub his figuris / vere latitas	6-5
tibi se cor meum / totum subjicit	6-5
quia te contemplans / totum deficit	6-5

Hemen interesgarria heterometria, hots, bertso batek besteak baino gehiago edukitzea latinean erraz konstata daitekeela. Latinean endekasilaboak, maiz, etena boskarrenaren ondoren emanen du. Euskaran, noski, heterometria nagusi izanen da 8/7/8/7, 7/6/7/6 eta 10/8/10/8 gisako *zortzikoe-tan*. Ia beti bertso-lerro pareak (etenok kontutan hartuta) ezpareak baino laburragoak izanen dira. Bainan honetaz berriro beherago okzitaniar-proventzar poesiaren eragina ikustean (10).

Latineko endekasilaboetan beste honek maizagoa den 5-6/5-6/5-6/5-6 eskema edukiko du:

Almi prophetae / progenies pia	5-6
claru parente et / nobilior patre	5-6
quem matris alvus / claudere nescia	5-6
ortus herilis / prodidit indicem (11)	5-6

(10) XII mendean 7/7/7/5/7/5 eskema arina duen ahapaldi hau aurki daiteke: «De Mariae timpanum: / resurrexit dominus / Hebraeos ad canticum / cantans provocet, / holocausta carminum / Jacob innolet!».

(11) *San Ambrosio*. Se S. Joane Battista, M.L. t. 17, 1214 or.

Beste batzutan 6/6 = 12-koak ere:

Coactus me rapere / me raptus spetie 6-6 = 12
 quovis expers venite / non fuisses iudice! 6-6 = 12

Baita oraindik osagai laburragoz 4-4-6 eskemaz:

Non sic, fratres, / censuistis / Symeon et Levi 4-4-6 = 14
 in eodem / facto nimis / crudeles et pii! 4-4-6 = 14

Eta, noizbehinka, euskal lirikan atzeman daitekeen 4-7-ko (endekasilaboa) egituraz:

Phebi claro / nondum orto iubare 4-7 = 11
 fert Aurora / lumen terris tenue 4-7 = 11
 spiculator / pigris clamat «surgite» 4-7 = 11

Gaztelaniar erromantzeroan hain ohizkoa izanen den 8/8/8/8-ko neurria ere ezaguna izanen da Erdi Aroko lirika latinoan (12).

Oraindik beste erritmo biziagoak «Carmina Cantabriensia» (XI mendekoak) delakoetan, halako dantza-aireak atzematzen direlarik:

Si cum clave veneris
et a et o
 mox intrare poteris
et a et o et a et o (13).

Baita 6-4(10)/6-4(10)/7-ko egitura arina dutenak:

Mea me confortat / promissio.
 Mea me deportat / negatio.
 O o totus floreo.

Kanta hau, gainera, korotan elkarrizketa batean kantatzen zen.

Neurri eta erritmo latino hauetatik euskal lirikara biltzen bagara ahaztezi-nezkoak gure 8/7/8/7, 7/6/7/6 ala 8/8/8/8-ko eskemak. Ukaezina da latinean neurriak arintzen etorri zirela, bereziki, dantzaren eraginez aire singleagoak behar zirenean. Lirika *proto-erromanikoak* joera horiek jasoko ditu.

Adibidez «Ni deitzen nuk Benat Mardo» kantak 8/7/8/7/8/7-ko neurria dager, paretan ematen delarik errima. Pedro Damiano-ren hurrengo himnoan ere 8/7/8/7/8/7-ko neurria, nahiz-eta puntuak ez eman saltaka euskal textuan bezala:

(12) Eta 8/8/7/8/8/7 eskema «Stabat Mater» delako himnoan: «Sabat mater dolorosa / iuxta crucem lagrimosa, / dum pendebat filius / cuius animam gementem / constristatam et dolentem / pertransivit gladius».

(13) Honen itzulpena litzakete: «Giltzaz bazentorke / *eta aih, eta oh!* / berehala sar zindezke / *eta aih, eta oh, eta eta aih, eta oh!*».

Euskal textuan:

Kopla horren emailia	8
ezta laboraria	7
zunbait markis, edo kunte	8
edo kardinalia!	7
bürdünarik dianian	8
zintzarri egilia (14)	7

Eta latin textuan:

Paschalis festi gaudia	8
mundi replet ambitum	7
caelum, tellus, ac maria	8
laeta pronant carmina	7
et alleluia consonis	8
modulentur organis (15)	7

Euskaran aski ohizkoa den 7/6/7/6 neurria ere present, aski hurbiletik Erdi Aro Beheko lirikan herrikoian. Gurean neurri hori nabarmena da Iparragirre-ren «Zibilak esan naute», «Gazte gaztetandikan» eta beste askotan. Latinean, ala ere, hirugarren bertsoak hamar silaba dauzka. Hona Iparragirre-k:

Gazte gaztetandikan	7
erritik kanpora	6
estranjeri aldean	7
pasa det denbora	6

Latin textuan:

Cantant omnes volucres	7
iam luscescit dies	6
Amica cara, surge sine me	10
per portas exire!	6

Interesgarria da ere 7/4/7/4/7/4-ko neurri-egitura latinean konstatatzea. Euskal endekasilaboaren azpian (hots, 11-koaren azpian), maiz, 7-4-ekoaren etena dago.

(14) Ikus KKK, 1. c. 198 or.

(15) Baita egitura beraz: «Luget, plorat, lamentatur / Sancta nunc Ecclesia / cum suorum tantam videt / abbatum miseriam / et eorum contemplatur / diversa pericula». Beste himno batean ere neurri bera (hots, 8/7/8/7/8/7-koa): «O quam dira, quam horrenda / vote judex intonat. / Cum paratis mergi flammis / maledictos imperat / mox deglutiens viventes / stygis olla devorat».

Hona Pedro Abelardo-ren textua:

Milites militiae	7
ducem tantum	4
lacrimantes plangite	7
sic prostratum!	4
Principes justitiae	7
sumant zelum	4
in tam execrabilem	7
vindicandum (16)	4

Hau bere 5-gn. planctum (euskaraz *plainu*, gaskoineraz *planh*) delakoa da. 4-gn, plainuan, berriz, batzutan, 5/8/5/5/8/4-eko eskema bihurria.

Bainan, denetan ezagunagoa oraindik, agian, «Pange lingua» izeneko himnoa, bere «Tantum ergo» ahapaldia liturgian hain kantatua delarik. Euskal eremuan himno honen neurriaz bertso finak egin zituzten gure Etxepare, Gazteluzar eta Argainarats gisako poetek. Ez ahaz apezok liturgia ongi ezagutzen zutela, eta liturgia horrek, latinez zegoelarik, erakarpen berezia zuela euren poesigintza kulturako. Beraz, ez daiteke mespretxa liturgiak euskal lirikaren hasimasetan neurri eta erritmoetan edukiko zuen eragina. Ikusten ari garenez, latinean konstata daiteke aurrez euskal eremuan ematen den neurri gisako hainbat, eta, noski, zenbat eta Erdi Aroa honuntzago etorri, erritmo horiek arinagoak (ez hain astunak) egiten dira, herri-hizkeren arruntasunaz nahasten direlako.

Hona bada «Pange lingua» delakoaren eskema (8/7/8/7/8/7):

Pange lingua gloriosi	8
Corporis mysterium	7
sanguinisque pretiosi	8
quem in mundi pretium	7
fructus ventris generosi	8
rex effudit gentium	7

Eta hona Etxepare-k bere «Doctrina christiana» kantan (nahiz 15/15-eko moldean eman, hau da, 8+7 = 15-eko kera luzean) eskaintzen diguna:

Munduyan den gizon orok	8
behar luke pensatu	7
langokoak nola duyen	8
batbedera formatu	7
bere irudi propiara	8
gure arima kreatu...	7

Hemen, noski, ez da ahaztu behar beste toki batean *oinetaz* (pies métricos) esandakoa. Erritmoa, beraz, *oinen* araberara dagoelarik 6-gn.

(16) *Pedro Abelardo*. Planctus David, M.L. t. 178, 1822 or.

bertsoko 8-koa (sinalefaz aparte, gure anima) oinaren aireaz askatzen da (hots, tripodiaz).

Ziburu-ko Etxeberri-ren «Noelak» liburuan 8/7/8/7-ko beste kasu hau:

Hertsi zenean Birgina	8
erditzeko ordua	7
Erromatik ethorri zen	8
Augustoren manua (17)	7

Eta «Pange lingua» delakoak (oinei dagokielarik) tetrapodio hauek dauzka, bertso pareta, *mys/te/ri/um* delakoan, oin trinkoan amaitzen duelarik:

Pange / lingua / gloriosi
Corpo/ris Mys/teri/um...

Eta Etxeberri-k berak 7/7/7/7-koa «O eguberri gaua» poesian, latinean ere konstata daitekeenez.

Pedro Damiano-k:

O genitrix aeterni	7
Virgo Maria, Verbi	7
quae vox, quae lingua carnis	7
par erit tuae laudis? (18)	7

Etxeberri Ziburu-koak:

O eguberri-gaua	7
bozkariozko gaua	7
alegeratzen duzu	7
bihotzean kristaua	7
Mundu guztia duzu	7
zorionez bethetzen	7
zergatik baitiozu	7
Salbatzaillea ekhartzten (19)	7

Argainarats apezak, itxuraz, liturgiaren egitura metrikoetatik hain hurbil dabilenak (ezen-eta bertako ofizioko textuak gureganatzen ditu), bere «Devoten breviariora»-n 8a/7b/8a/7b/8a/7b/8a/7b neurriaz adibide hau:

Trinitate sainduaren	8 a
corteco erreguina	7 b
ama Jenco beraren	8 a
huntaracotz eguina	7 b

(17) *J. Etxeberri Ziburukoa*. Noelak. op. c. 47 or.

(18) *San Pedro Damian*. Rythmus de S. Maria Virgine, M.L. t. 145, 937 or.

(19) *J. Etxeberri Ziburukoa*. Ibidem, 54 or.

Eva orde çaituguna	8 a
halaber guc gurea	7 b
libratu darocoçuna	8 a
ceruraco bidea	7 b

Kontutan izan hemen puntua bertso ezpareak ere ba daramala; beraz, «Pange lingua» kasuan bezala, puntua ezpare eta paretan ematen da:

Pange lingua gloriosi	8 a
Corporis muysterium	7 b
sanguinisque pretiosi	8 a
quem in mundi pretium..	7 b

Argainarats-ek bere liburuko gaiak haizeatzean, dudarik gabe, latineko *officium* edo *breuinrium-aren* aireak eta temak darabilzki (20). Harizmendi apezak ere (bertsoetan) «Ama Virginaren hirur officioa» (Bordele, 1658) argitaratu zuen.

Gazteluzar-en «Eguia catholicac» liburua puntuz eta neurritz aberatsagoa da, baina bertan latin kutsuzko neurri zenbait aurki daiteke. Hona, adibidez, «Jesu Redemptor omnium» himnoaren neurritz (8/8/8/8-koaz) atondutako ahapaldia:

O Jesu arima guztien	8
erosçaille Jaun Jainkoa	8
çuc Pontife saindu hau duçu	8
errendatu zerucoa	8

Eta himno latinoak:

Jesus, Redemptor omnium	8
perpes corona praesulum	8
in hac die clementius	8
indulgeas precantibus	8

Gazteluzar-engan, gainera, 9/8/9/8, 4/7, 4/7 eta 7/6/7/6-akoak ez dira faltako; batzuk liturgiaren eremutik hurbil.

«Ave Maris stella»-ren ildo metrikoa (6/6a, 6/6a) hurrengo honetan:

Agur darotçugu	6 -
Jainkoaren Ama	6a
isassoco içar	6-
gure erresuma	6 a
Ave, maris stella	6 -
Dei mater alma,	6 a
atque semper virgo	6-
felix coeli porta	6 a

(20) Argainarats-en liburuz *J. Vinson-ek* 1910.ean birredizio mugatu bat egin zuen. Handik textuak. Ikus: *J. Vinson. Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*, 21 eta 30 or.

Latina IX, X, XI mendeetan hizkera erromanikoetan desegiten doan araberan erritmo arinagoak eta singleagoak azaltzen datoz. Bainan, poesia latinoak mende berant horietan aire laburragoak eskaintzen dizkigu, dudarik gabe, Pedro Abelardo, Damiano eta beste batzuen lumatik (21). Honela Pedro Abelardok tipologia honetako neurriak:

6-6/6-6, 5-/5-5, 4-4/4-4

Mater pietatis	6
adsis pia nobis	6
nec spe sua fraudes	6
de te praesumentes (22)	6
Serpens erectus	5
serpentum morsas	5
conspectu sanat (23)	5
Ad caelestis	4
ortum regis	4
rex terrenus	4
jus auferri	4
timet sibi	4
principatus (24)	4

J. M. Leizaola-k apartaturiko (25) 13/13 etenaz *zortziko txikia* litzatekeen 7-6/7-6/7-6/7-6koa, «Placidus fuit» hitzez hasten den himnoa:

Placidus fuit dictus	7	13
magister militum	6	
habundancia dives	7	13
fortis in prelio	6	
qui antequam dex regno	7	13
sciret perpetuo	6	
subveniebat de suis	7	
rebus pauperibus...	6	13

Neurri berdinez daiteke, beraz, hain ezaguna den Iparragirre-ren «Zibilak esan naute» delakoa:

Zibilak esan naute	7
bizi egoi	6
Tolosan biar dela	7
gauza au erabaki	6

(21) Goian aipatutakoetaz aparte hauek ere: 7/7/7/7/5ekoa: «Veris grato tempore, / resurrexit Dominus. / Mundus reviviscere / cum iam incipit, / auctorem resurgere / mundi decuit». Eta 8/7/8/7 delakoaz: «Angelorum stupent cantu / admoniti pastores; / magos nova ducit stella: / metu languet Herodes».

(22) *Pedro Abelardo*. In festis B. Mariae, M.L. t. 178, 1804 or.

(23) *Pedro Abelardo*. In festo Inventionis Sanctae Crucis, M.L. t. 178, 1797 or.

(24) *Pedro Abelardo*. In festo SS. Innocentium, M.L. t. 178, 1807 or.

(25) *J.M. Leizaola*. Romances vascos y literatura prehistórica, op. c. 233 or.

giltzapian sartu naute	7
poliki-poliki	6
negar egingo luke	7
nere amak baleki	6

Parekaketak asko luza daitezke oraindik. Honek guztiak, ala ere, ez du esan nahi iturri horiek gure sorburu hurbilak (inmediatos) direnik, bainan, bai antzeko iturriak aurki daitezkeela Erdi Aroko latinean eta ondorengo lirika erromanikoetan. Gure neurriak, beraz, ez dira guztiz jatorrizkoak. Pretentsio hori gehiegizkoa litzateke. Alabainan, herri eta kultura bakoitzak kanpo eraginak bere joera endogenoen erara hartzen ditu, aire eta neurri batzuk hobetsiz, eta hartuak aldatu eta egokituz. Latin liturgikoaren eremuan (eta profanoan ere IX mende inguruan) aurkitzen den aire aunitz biziki hedatzen da Europan zehar, eta bereziki, proventzar eta okzitaniar eremuan gureari dagokionez. Lauko monorritmoak ere ez dira falta, hots 13/13 (etenaz 7-6/7-6) ala 15/15 (etenaz 8/7/8/7)koak direnak (26). Honako hau, adibidez, XI mendekoa da (eta gure eremuan 1194 aldera eman zen, «Orreagako loa edo laudorioa» baino aurreagoa:

Cantan omnes volucres	7
ian lucescit dies	6
Amica cara, surge sine me	7
per portas exire! (27)	6

Eta Oihenarte-k apartatuta bere poesi arautegian beste honako hau:

Nobis sancti spiritus
 gratia sit data
 de qua virgo virginum
 fuit obumbrata
 cum per sanctum angelum
 fuit salutata
 Verbum varo factum est
 Virgo faecundata

Himnoa, noski, 13/13/13/13-ko monorritmoetan idatzita dago. Pedro Abelardo-ren bertso laburrok ere 7/6/7/6-koak dira eta, kurioski, Leizaola

(26) Ikus honetaz J.M. Leizaola. «La poesía latina de los tiempos carolingios y la euskérica», in *1808-1814 en la poesía popular vasca*, 222 ond. Baita. J. Haritschelhar. Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun, op. c. 489 ond. Hala ere, parekaketa batzuekin zuhurrago ibili behar da. Adibidez, Bilintx-en «Jauna Bixenta Olabe-ren» bertsoen eta latin «convivium» arteko parekaketak egitea etzaigu hain itxurazkoa iruditzen (J.M. Leizaola, art. c. 218). Askotan gure textu eta latineko iturri baten arteko zazpi ala zortzirehun urteko tartea lotura gaitzezko etena gerta daiteke.

Eta, bestalde, «Orreagako loa» dela-eta, latinak euskal lirikari 7-6/7-6-koa kopiatu ziola esatea gehiegikeria deritzaigu. J. Haritschelhar-ek bere aldetik «Salve mundi domina» himnoaren eredia dakar eta, noski, ez da bakarra. Ikus: J. Haritschelhar, op. c. 492 or. Puntu hauetaz aparte J.M. Leizaola-k urraspide ederrak egin ditu han-hemen.

(27) *Peter Dronke-k* zitatu. Ikus: La lírica en la Edad Media, op.c. 221 or.

mintzo zaigun «Orreagako» textua baino lehenagokoa (hots, Abelardo bizi izan zeneko 1079-1142 urte artekoa):

Pueriles naeniae	7
super cantus omnes	6
orbati miseriae	7
senis erant dulces (28)	6

Eta Pedro Damiano-tik (1007-1072 urtetako autorea) beste adibide hau 13/13-ko monorritmoaz eta 7-6/7-6-ko etenaz:

Pater, Verbum, Spiritus/fixit sessionem	13 (7-6)
propter quod nunc largius/ad devotionem	13 (7-6)
teipsam fidelibus/praebes lectionem (29)	13 (7-6)

Ikusten denez, latinaren eragina liturgiaren eremuan zehar, beste herri kristauetan bezala, gurean ere albora ezina izanen zen. Eragin hori, noski, gure molde eta joeretan txertatuta onartua izanen zen; baina neurri batean latineko iturrien influxua ukatzea etzaigu taxuzkoa iruditzen. Bestalde, eragin hori ez daiteke isola edo bakan hizkuntzak berak bere lexikoan pairatu duen eragin guttizkoatik (30). Gure kultura mendebalde latinizatuan kokatzen delarik ezin zitekeen guttiz permeagaitza izan alboko herrietako joeretara.

2. Eragin okzitaniarra eta frantsesa gurean

Lan honen orrialdeen zehar egina dugu okzitaniar-proventzar lirikaren erreferentzia. Euskarari gaskoina-biamoerari dagokionez gertatu den bezala, iparreko Euskal Herriari lirikari eremua alboko eta ukipenezko kultura okzitaniarra izan du. Beraz, gaskoin-okzitaniar kulturaren ukitua Paris-ko Gorte-ko hizkuntza ofizialarena baino sakonagoa eta zaharragoa da.

Euskararen lexikoan mailebu gaskoinak etengabeak dira; halanola, *milleka* (gask. milloc), *arbuiatu* (gask. arbohùià), *suila* (gask. sulha), *miraila* espejo (gask. miralh), *mailebatu* (gask. malhebà), *maneiatu* (gask. maneja), *goaita* (gask. goait), *treslat* (gask. treslat), *barraiatu* (gask. barrejà), *trabelatu* (gask. trabelhà), *arunt* (gask. arrount), *baxera* (gask. bachère), *txistera* (gask. chistère), *padera* (gask. padère), etabar (31).

Bestalde, euskarak gaskoineran (landeran eta biarnoeran, bereziki) bere zantzu lexikalak eta fonetikoak utzi ditu *h* asperenduari eta dardakari aurretiko protetikari dagokionez.

(28) *Pedro Abelardo*. Planctus Jacob super filios sus, M.L. t. 178, 1188 or.

(29) *San Pedro Damian*. Rythmus de eadem sanctissima Virgine, M.L. t. 145, 940 or.

(30) Ala ere, gure «Latina eta erromanikoaren eragina euskarari» lanean aitortu dugunez latinaren eraginak etzituen, ukitu, funtsean, gure hizkuntzaren morfologi funtsa aurrelatino garbiak, eta hori benetakoa miraritzat hartua izan behar da.

(31) Gaskoinaren kontsonantismoaz ikus gure «Latina eta erromanikoaren eragina» liburua, 160-211 or. Baita lan bera: «Euskarara iritsitako hitz erromanikoen bokalismoa», Euskera 28 (1983) 171-219 or.

Kontutan eduki behar da Okzitania nagusiko literatura XII, XIII mendetan, maiz, Proventza-koarekin nahasten dela. Beraz, esana dugun bezala, eskuliburuetan trobalari proventzar gisa ematen den autore aunitz hizkeraz eta jatorriz gaskoina da. Horien artean Cercamón (seguraski), Jaufrè Rudel, Alegret, Marcabré, etab.

Euskal lirikak, beraz, Proventzatic hartu duen eragina, logikoki, Gaskoinaren bitartez ailegatu da. Eta eragin hori trataera batzutan ukaezina da. Leizaolak ere ongi dio: «Un estudio de los orígenes de la poesía euskérica no puede hacerse sin una referencia a la lírica de los trovadores. Durante todo el tiempo, siglos XI al XIII, que ésta última tuvo existencia, el contacto entre el país de la «langue d'oc» en que ella se produjo y las tierras vascas fue permanente. La lengua de oc y la lengua vasca son dos lenguas contiguas. Una influencia de la poesía de una de ellas sobre la poesía de otra sería perfectamente natural y lógica» (32).

Har dezagun, adibidez, Proventza-ko lirikaren bertsifikapen-alde zenbait. Proventzako lirikan (latin klasikoan ez bezala) neurri-irizpidea silabis-moa bilakatzen da. Bestalde, IV mendean oraindik San Ambrosio-ren himno gehienak errimarik gabe atontzen dira. Latin herrikoian errima geroz eta gehiago nagusitzen etorriko da. Neurriari dagokionez, berriz, proventzaleran azken azentuak garrantzia handia edukiko du silaben kopurua kontutan izaterakoan. Eta guri interesgarri zaigun beste nabardura da, alegia, etenak azaltzen direla 10 silabakoetatik gehiagoetan hemistikoak sortuz (adibidez, 10 = 4-6) (33). Eten horiek oso biziak dira okzitaniar, proventzar eta kataluniar lirikan ia XIV-XVI mende arte. Baliteke euskal *zortziko handian* (10/8/1/8) 5-9-5-3 etenak ematea ohitura horietatik etortzea; probentzaleran aski sistematikoa zen; bainan, gaztelanian ere 5-5 hemistikioak (etenak) ezagunak ziren. Proventzan 6-4-ko etenari «a maioari» zeritzan, eta alderantzizkoari, hots, 4-6-koari, «a minar».

Hona 4-6-ko etena (hemistikioa) duen bertsoa:

Si tuit li dol / e-lh plor e.lh marrimem

Badira 6-6-ko etena dutenak ere:

Un sirventes farai / d'una trista persona

Eta 4-6-ko dekasilabo bat hartuta osoro hau:

E fai de mi / chansons e sirventes	4-6
ab caitius motz / mal pausatz e mal mes	4-6
l'un curt e fals / l'autre fraich e redon	4-6
ben par qant / el las fetz quà via son	4-6

(32) J.M. Leizaola. Estudios sobre la poesía vasca, op. c. 161 or.

(33) 4-6-ko neurria dela-eta J. Haritxelhar-i eragina, prezeziagi, frantsesa deritzaio. Leizaola-k, berriz, nahiago Proventzako iturrietara jotzea. Gure iritzian neurri hori bai frantsesa eta bai proventzala izan daiteke, bi liriketan ez baitira falta adibideak. Dekasilaboa Proventzan, gehienetan, laugarren silaba ondoren ebakitzen zen. Endekasilaboa ere present dago Proventza-ko, lirikan. Cfs. Q. Haritschelhar. «Le sythme poétique (4+7 = (4+6)», in *Gure Herria*, 1961-eko urtharril-otsaila, 1-13 or.

Kopla hau Raimon de Miraval-ena da.

Errimari dagokionez, probentzalerak azken azentua ondoren kontsonantziara joko du, eta ez asonantziara. Euskal lirikan bai kontsonantzia eta bai asonantzia aurkitzen da, bainan, herriak asonantzia gehiago maite duela esanen genuke. Gertatzen ez den bezala Bertsolaritzan, asonantziak alboratu egiten ditu -TURIK, -ERIK, -GATIK, -ETAN gisako kontsonantzia merke eta errepikakorrak.

Proventza-ko errimak, Oihenartek bere «L'arte poétique basque» (35) delakoan azaltzen digun, errima zorrotza edo oxitonoa eta proparaxitonoa edo leuna gogoratzen digu. Adibidez, errima zorrotzez edo maskulinoaz kopla hau:

Cil que cuidon qu'eu sia sai
no sabon ges com l'esperitz
es de leis privatx et aizitz
si tot lo cors se'n es lonhans
Sapchatz lo melher messatgers
c'ai de leis es mos cossiress
que.m recorda sos bels semblans (36)

Eta beste hau:

D'aissos fa be femma parer
ma domma per qu'e.lh o retrai
car no vol so c'om deu voler
e so c'om li deveda, fai (37)

Beste kopla honetan, berriz, errima *leuna*:

Si.m fezes ben, en gazardo
eu sai be trobar ochaizo
per que.l servizis si recre
Mas so d'aquels derrers simple
per malvestat cudan levar
e mais valer sordeiar (38)

Proventzako lirikan (gurean bezala) errima merkeak eta aberatsak (*rimas car-s*) topa daitezke han-hemen. Lirika hura neurri handi batean, bapatekoa zelarik, etzen libratzen, maiz, puntu pobreetatik.

(34) Euskal itzulpenean: «Nire aurka kantak eta sirbentesiak hitz arlotez (gaizki ezarri eta paratuz) egiten ditu: bat laburra eta faltua, bestea etena eta borobila. Itxuraz lo zetzan (kopla hau) egin zuenean».

(35) Ikus: *P. Lafitte*. L'arte poétique basque» (Un inédit d'Arnaud d'Oyhenart), in «Gure Herria», 39 (1967) 195-234 or.

(36) *M. Riquer*. La lírica de los trovadores, op. c. 263 or.

(37) *M. Riquer*. La lírica de los trovadores, op. c. 273 or. Euskal itzulpenean litzateke: «Eta honetan ene dama benetan emakumea da, eta kexua diot, maitagarria ez baitu maite, debekagarria eginez».

(38) *M. Riquer*, op. c. 347 or. Bertan *sordeiar* gure *sordets* hitzaren familikoa.

Arazo honetan, ala ere, aipagarriena (eta guri interesgarrietakoa) errima maskulino/femeninoaren (*zorrotza/leunaren*) fenomenoa da. Gaztelanian eta galizieran, adibidez, ezparisilaboak ez dira gurean bezain ohizkoak (eta bestainbeste Okzitania/Proventzaren eremuan). Gaztelaniak 8/8/8/8 eta 6/6/6/6 gisako bertso parisilaboetara joko du (nahiz-eta ezagutu ezparisilaboak ere). Gurean, berriz, bertso pareak ezpareak baino silaba bat *gutxiago* edukiko du, oso maiz, ondorio hauek emanez:

8/7/8/7

7/6/7/6

10/8/10/8

6/4/6/4, etab (39).

Silabismoaren desberdintasun horren arrazoina okzitanier-frantzes eremuan azken bokalearen galketan ala mututasunean aurki daiteke. Beraz, azken bokale zorrotzek silaba bat gehiago gisa kontatzen dute (adibidez, okzitanieraz *aldatz* 3 silaba/ez 2 silaba, *depast* 3 silaba/ez 2 silaba); baina gaztelanian ere bokale zorrotzak bi gisa kontatzen du poesigintzan (adibidez, *buscó* 3 silaba/ez 2 silaba, *amor* 3 silaba/ez 2 silaba).

Proventzar lirikan errima maskulinoa eta femeninoa gurutza daitezke koplak batean. Adibidez Marcabré-ren koplak honetan:

Qu,ieu sui assis en trebalh (mask.)

e levatz en la balansa (fem.)

d'aquesta say quem trabalha (fem.)

em ten en aquest balans (mask.)

qu'a doussa saber azesca (fem.)

sos digz de felhon azesc (mask.)

Hemen puntu maskulinoak *trebalh/balans/azesca* dira, baina nolatan puntu horietan silaba bat gehiago kontatzen den koplak bata-bestez 8/8/8/8/8/8-ko neurria dauka (eta ez itxurazko 8/7-koa). Arazo honek badu bere garrantzia gure lirikara biltzerakoan (hots, bokale ez-azentudunaren galketa dela-eta). Eta okzitaniera-probentzalerakin batean frantzesak ere badu zerikusia gure isosilabismo-eza horretan.

Kantatua edo musikatua zen kasutan paraxitonoak edo femeninoak oxitonoak baino silaba bat gehiago eduki zuen. Etendurazko silaba azentugabeak, nahiz ez kontatu, gerora balioa edukiko du.

Honela 12/12-ko bertsoek 7-6/7-6-ko balioa eduki zezaketan, hau da, 13-koa, zesuran (edo etenean) *biko balioz* kontatzen zelako. Gertakizun horren araura dekasilabo baten ondorioa, azentuaketa dela-eta, 5-5/5-5-ekoa ordeztu 6-5/6-5-ekoa ala 5-6/5-6-koa, eta baita 4-7/4-7-koa izan daiteke. Arazo hau dela-eta J. Haritschelhar-ek ongi dio: «Le rythme 4+7 a été souvent

(39) Baditugu oraindik zortziko txiki hautsiak gisako ezparisilabitate jarraitzen dutenak. Adibidez: 7/6/7/6/5/7/6, *puntua* paretan eta 5 silabakoan egiten duelarik. Hona beste bat: 10/8a/10/8a/5b/5b/8a (seiko *nagusi hautsia*, J. M. Lekuonaren deituran).

employé dans la littérature religieuse basque, associé au vers 4+6 ce qui fait une alternance de décasyllabes a rime féminine et à rime masculine. Nous avons déjà démontré que ces vers provenaient de vers épique français et qu'ils étaient parvenus jusqu'au Pays Basque par l, intermédiaire de la chanson française religieuse ou profane» (40).

Musikari dagokionez aldi bortitzenak 4-7/4-7-koan hemen leudeke:

- - - - / - - - - - - -
 - - - - / - - - - - - -

Neurrira etorritz, bada, bertso ez-isosilabikoak, hots, 8/7/8/7, 7/6/7/6 gisakoa izate horretan, badu zerikusia, probentzaleran, frantzesean, okzitanieran oxitonoak duen kontaktak (eta gaztelanian «aguda» kasuak), irtenbide desberdinak ematen direlarik. Beraz, 8/8 (oxitonoa) maiz 8/7/8/7 gisa kontatuko da bigarrenari silaba gutxiago baten balioa emanez. Adibidez, 7/6/7/6 delakoa (13-ko monorritmoa) probentzaleraz 7/7-koa litzateke (okzitanieraz oxitonoak bat gehiago kontaktzen duelako).

Adibidez, honako hau, beraz, 8/8/8/8-koa da, nahiz itxuraz 8/7/8/7-koa izan euskaldunarentzat (paretako azken oxitonoak biko balioa baitu):

Si tot fatz joi parvensa	8
mout ai dins lo cor irat	8(oxitonoa)
Qui vid ant mais penedensa	8
faire denan lo pechat? (41)	8(oxitonoa)

Euskaldun batek hauek 8/7/8/7-ko gisa hartuko lituzke, silabismoan silabak *unitate bakar* bezala kontaktzen baitu euskaran.

Orain, ahapaldia edo estrofaren eremura pasaturik, ahapaldiaren izena Proventzan *cobla* zen (euskaraz *kobla/koblakari* gaskoineraren eraginez). *Cobla* laburrenak hiru bertsoak ziren; maizena zortzi bertso-lerrotakoa zen, bederatzi eta hamarrekook ere ohizkoak izanik. Azkenaldean, bertso urriagoak zituzten ahapaldiak «tomadas» deitzen ziren, eta, noski, azken *refranh* edo errepikak etziren falta.

5. Gaztelaniaren eragina

Gaztelaniaren influxua neurriari dagokionez ez dugu uste iparrekoa bezain sakona izan denik. Gure 8/7/8/7 (8/8/8/8-koarekin batera) izan daiteke gaztelaniaren eraginekoa, nolabait, zortzsilabadunak Gaztelako erromantzeron indar berezia eduki duelako. 8/7/8/7 formularekiko kontutan izan gaztelaniar azentu zorrotzek berez 8/7/8/7-ko formulan idazten direla, azken silabari balio bikoa emanez. Hori, hala ere, hipotesi hutsa da, ezen-eta

(40) *J. Haritschelhar*. Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun, op. c. 471 or. Ikus ere: IDEM. «Le rythme poétique (4+7 - 4+6)», in *Gure Herria* 1961 urth. otsaila 1-13 or.

(41) *M. Riquer*. La lírica de los trovadores, op. c. 140 or. Berdin beste honetan ere: «Ja no.m partrai a ma vida, / tan com sia sals ni sas, / que pois l'arma n'es issida, / balaya onc tems lo gras» (Ibidem, 141 or.) «Sas» eta «Gras» bisilabadun gisa kontaktzen dira.

zortzsilabakoak edo oktosilaboak ez baitira falta Frantzia hegoaldeko tradizioan ere, gerora ipar Euskal Herriko aire eta textuetan atzematen direnak.

Bestalde, 7-6/7-6, 6-5/6-5 gisako neurriak ere ez dira falta Gaztelan. Puntuari dagokionez, gainera, monorritmoa aski ohizkoa da; baina, berriro, kointzidentzia horiek ez dira aski gaztelaniar iturria gureei atxikitzeko. Beraz, Erdi Aroan inguruko lirika guztietan monorritmoa aski inposatua zegoen, eta latinean bertan etzen falta. Beharbada, kanpo eta hurbileko lirika guzti horien eragin orokorra ikustea litzateke zuhurrena.

Iturriei begiratuta, Gaztelako endekasilaboa Frantzia eta Proventza-tik dator, baina Galizia, Portugal eta Kataluniaren zeharbidez. Heptasilaboa (zazpisilabaduna), berriz, Espainian zaharretakoa da, himno latinoetan biziki errotua, eta alenxandrinoetan (etenen edo hemistikioen banaketaz) atondua; oktasilaboa edo zortzsilabaduna, bere aldetik, Gaztelan tradizio handienetakoa bilakatuko da. Bere iturri latino tetrametro trokaikoa dela dirudi (- . - . - . - . / / - . - . - . - .), eta bereziki, erromantze-roan hedatua aurkitzen da.